

Euskaldun folklorikoa

Deia, 1977-07-05.

Euskaltzale asko dugu Euzkadin.

Badirudi, benetan, sumindu batzuk ezik, euskararen aurkako arrazoirik ez dela nabarmentzen. Eta, bestetik, euskaldun eta erdaldun asko dela gure euskararen legetasuna eskatzen duena.

Batekoak eta bestekoak batu, eta badirudi ia denak euskaltzale garela.

Folklore neurri honetan behintzat.

Berdin gertatzen da beste abstrakzio neurri batean: askatasunaren, elkar-respetuaren, zuzentasunaren eta beste honelako gai askotan; gero bakoitzari dagokion alor eta eginkizunetan gurekoitasun basati batekin jokatzeko badugu ere.

Euskararekin honetan erortzen gara erraz.

Hara hemen euskal-folklorekeriaren eredu batzuk:

1. *Deia*-ra kexak bidaltzen dituzten gehienek, erdaraz bialtzen dituzte; ez dakit erdaldunak katekizatu edo konbentzitu nahi dituztelako, edo salakuntza hau zabalago eta indartsuago egin nahi dutelako.

2. Kexa horien artean gehien datorren bat; ez dugu egiten dugun euskara behar genukeen ulertteraza egiten. Hemen esan nahi dut, egunkarietarako behar dugun euskara erraza eta bizkorra sortzeko lanetan hasi besterik ez dugula egin; bitartean, orain arte agertu diren astekari eta liburu gehienak irakurtzeko gai izan denak, ulertu behar lukeela, ber-bera baita oraindik, eta irakurri ez baditu, ez du gure lan hau epaitzeko fidagarritasunik. Ama euskaldunen titiak autoridade bezala aipatzen dituztenei esaten diet, etxe barruan ikasi genuen harek ez duela gure gaurko munduaren konplejidadea erakusteko ahalmenik; bestela, ez zuten gainontzeko hizkuntzek hainbeste gramatika eta literatura eta katedra eta komunikabideren beharrik izango. Badakigu, euskara literario hori apur bat jaisten ahalegindu behar dugula, eta honetan hasi besterik egiteko astirik ez dugu oraindik izan. Bestalde, horiei esango nieke, erdaldun analfabetoek ere ez dutela erdarazko egunkaririk irakurtzen, eta ezin dutela euskaldun analfabetoek gehiago egin.

3. *H* santu edo madarikatu honi esker, jende asko ari dela bere burua zuritzen; aitxakia ederra eta erraza baita! Honetan, guk, *Deia*-n, arau bezala instituzioarekin egotea erabaki dugu (ez Lefebvre-keriako ortodoxia berekoi eta itsu batean) anarkia hutsaren alternatiba bakar bezala. Eta kolaborazio mailan h-rik gabe datozen lanak, ondo etorriak direla.

Euskara (eta inglesa!) ikasteko indizioak sortuko balira, izango genuke euskalduna franko orain bertan.

Baina neke-bideak baino ezin diogu gure buruari eskeini gaurkoz.

Nik ere bai baitut nerean.

Baina, egitan, alperkeria eta interes falta aitortu beharrian, folkloreakeria hontan erortzen ari den jendeak behar luke pentsatu, gu egin nahian ari garen lana ez dela erraza; borondate ona, lana eta denbora eskatzen duela.

Eta ez folkloreakeria erraz hori.